# Israel-en harresiaren aurkako kontzentrazioa egin dute Bilbon

2016/11/09




Gaur, azaroak 9 harresien aurkako nazioarteko eguna da eta horregatik arratsalde honetan, BDS plataformak (Israelen aurkako boikota, desinbertsioa eta zigorra bultzatzen duen) kontzentrazio bat egin du Arriaga plazaren aurrean. Palestinarekiko elkartasun plataformak Israelek Palestinan eraikitzen hari duen harresia salatu du, baita ere mendebaldeko estatuek eta nazioarteko komunitateak ez daudela ezer egiten honen haurrean.

**alt=""
swfobject.embedSWF('http://www.youtube.com/v/R-r0JCTa8T0','avreloaded0','400','320','9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',{autoplay:'0',color1:'0xFFFFFF',color2:'0x000000',rel:'0',egm:'0',border:'0',loop:'0'},{wmode:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'},{id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});**

Beste alde batetik komunikabideek esarri duten harresi informatiboa salatu dute. Harresi honen bitartez Israelen sarraskiak eta errepresioa izkutatzen dutela salatu dute. Esate baterako goraipatu dute, urrian 554 pertsona atxilotu dituzte Palestinan, horien artean 130 adin txikikoak dira.

Horregatik, BDS (Boikot, desinbertsio eta zigorra) kanpainarekin bat egiteko deia luzatu dute, Israelek Palestinaren aurka ezartzen duen errepresioa geldiarazteko.